

**U**nibertsitatean harra-patu nau Txillardegiren heriotzaren albisteak, hain zuzen ere, euskarazko ekitaldi batean. Hona nire lehen burutazioa. Txillardegiren gomutan: euskara eta unibertsitatea. Berak, beste batzuekin batera, errealtate horren egilea izan zen. Gero, jakina, bestelako kontuak etorri zaizkit burura, hala nola, behinola hitzorduak, Ned Thomas galestar soziolinguistarekin. Ondarroan emandako hitzaldi hura edota hamaika ekimen eta lan, euskararen sustatze eta babesletza zereginetan gauzatuak.

Belaunaldiei dagokienez, Txillardegik ekarri zigun guri, joan den mendeko 50-60 hamarkadetan jaiotakoei, halako haize berria, desberdina, nobela zein saiakera arloetan eta, oro har, gizartearen eta kulturetzaren esparru antzetan. Osterantzeko tenore horrek zekarren, ekarri ere, euskararentzat etorkizuna eta biziraupena.

Ingurukoa aintzat hartuta, Txillardegik, beste askoren antzera, oro egilea izan da euskalgintzan, teorikoa nahiz eragilea. Letraz letra irentsi genituen gutariko askok, gose eta ezin ase ari ginenok euskararen munduan, haren lanak eta tituluak, euskara batuaren erakitze prozesuan.

Euskara batua, euskararen

**ANDRES URRUTIA**  
EUSKALTZAINBURUA

## EUSKAL INTELLIGENTSIAREN HARITIK



Txillardegik eta Urrutia, 'Nerekin yaio nun' liburuaren aurkezpenean. L.M.

eraberritzea, euskararen normalizazioa... orduko kezkek eta ardurak ziren, egun ere euskaldunoi ezinegona ekartzen ditutenak. Txillardegik bistan da, horiek askatu, erraztu eta arrotzen ahalegin du.

Kontuak kontu, Txillardegik gerra osteko euskal inteligentsiaren berregite prozesuan zeregin esanguratsuak bete ditu. Eta berean, esker abertzalearen ildoan, ez bairik gabe, hots handiko lana egin du, ekintzaz nahiz lekukotzaz. Nobela egilea, saio egilea, soziolinguistikaren inguruko aditua, kazetaria eta maisua, irakaslea, aukera guztiak baliatu zituen edonon eta edonoiz, euskararen aldeko ideiak barreiatzeko eta

gizarteratzeko.

Luze eta sakon jardun du Txillardegik euskalgintzan eta horren barruan, Euskaltzaindian ere. Haren emaitzak eredu-garriak eta aintzat hartzekoak dira eta haren merituak zalantzarik gabekoak. Aspaldiko euskaltzain urgazlea izanik, hariduraz ikusi genuen askok haren hautagaitzak ez zuela aurterapiderik izan euskaltzain oso izateko.

Urte batzuk geroago, euskaltzain ohorezko izendatu genuen eta berak izendazio hori baino, nahiago izan zuen eta biziki eskertu ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak batera argitaratu eta Henrike Knorr zenaren eta Pilartxo Etxebarriaren zuzendaritzapean jaso zuen omenaldi liburua, Nerekin yaio nun, 2005. urtean.

Falta zena Euskaltzaindiaren literatura batzordeak ondu zuen 2007. urtean, haren lehen nobela, Leturiaren egunkari ezkutua, aztergai hartu jardunaldi batean eta emaitzak kale-ratu zituen urte bereko Euskera agerkarian.

Joan zaigu Txillardegik. Etxekoei, bihotz-bihotzez, doluminak. Euskalgintzari, aldir, itxaropena, garai latz hauetan, apartera joan gabe, gurean baititugu aurrera egiteko gidariak. Besteak beste, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegik.

# AUTOCASION .com



¿Buscas coche?

En **autocasion** tenemos todas las marcas y colores

Y si no, te lo **pintamos**